



DONOSTIAKO HONDARTZETAN NORMALTASUN ERABATEKOA IZANGO DA OSTERA ERE, BI URTEZ MURRIZKETAK IZAN ONDOREN

- Eguzki-oihalak, alokairuko aulkiak eta gabarroiak itzuliko dira, eta edukiera kontrolatzeko kamerak mantendu egingo dira

Donostiak bete-betean gozatuko du uda honetan bere hondartzez, osasun-egoeraren ondorioz bi urtean zerbitzu batzuk mugatu beharra izan eta gero.

Hiri Mantentzeko zinegotzi Miguel Angel Díezek adierazi du “hondartza-garaia normal joatea espero dutela eta hondartzak prestatzen ari direla ohiko zerbitzuak mugarik batere gabe emateko. Aurten, Donostiak bere hondartzen xarma guztiaz gozatuko du; izan ere, kalitate-bereizgarri handiena dute.”

Uda-garaia ekainaren 1ean hasi eta irailaren 30ean amaituko da. Hala ere, zerbitzu batzuk, ohi den bezala, ekainaren 15ean hasi eta irailaren 15ean amaituko dira.

Hondartza-zerbitzua normal emango denez, berriz ere erabilgarri izango dira eguzki-oihalak, Kontxako aulkiak, gabarroiak eta abar.

Nabarmenezkoa da azken bi udetan edukiera kontrolatzeko kamerak jarri direla Urgullen eta Igeldon. Kamerok mantendu egingo dira, herritarrei hondartzetan zer edukiera dagoen denbora errealean jakinarazteko.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Modu horretara, eguraldi onaz gozatu nahi izanez gero, modua izango dute hondartza batera joan edo bestera joan aukeratzeko. Pandemiaren bi urteetan martxan jarri zen APPak, bestalde, bainurako banderen berri emango du, alegia, itsasoa bainatzeko moduan den, marearen, olatuen garaieraren eta korronte arriskutsuen arabera. Zurriolako hondartzan, korronteei buruzko informazioa emateko kartelak jarriko dira: korronte finkoak gorritz agertuko dira; eta mareen arabera aldatzen direnak, horiz.

GARBIKETA-ZERBITZUA

Donostiako hondartzak egunero-egunero garbitzen dira, hondartza-garai ofiziala izan zein ez izan.

Udako operatiboan, makinak ez ezik, 22 pertsona aritzen dira lanean.

Gauetz, hondarra bahetzen da; lan hori, udan, 10:00ak baino lehen amaitzen da, hondartzetako lehen erabiltzaileei eragozpenik ez sortzeko. 10:00etatik aurrera, harea eskuz garbitzen da, paperontziak husten dira, sarbideak eta Kontxako hegala ekortzen dira, eta ur gaineko hondakinak ere biltzen dira, ontzi berezi batekin.

SOROSPEN-ZERBITZUA

Sorospen-zerbitzua BPXport enpresak emango du aurten ere. Guztira, 29 pertsona jarriko ditu enpresa horrek hondartzetan, eta operatiboaren arduradun bat hondartza bakoitzean. Zazpi sorosle izango dira Kontxako hondartzan, sei Ondarretan, bat Santa Klaran eta bederatzi Zurriolan. Horrez gainera, sorospen-zerbitzuko koordinatzaile orokor bat eta uretako motoko bi patroiz izango dira.

Ekainaren 15etik irailaren 15erako ordutegia 10:00etatik 20:00etara da, eta irailaren 15etik 30era 10:30etik 19:30era.

Nabarmentzekoa da aurten zaintza-dorreak aldatu egingo direla eta egurrezko lau dorre jarriko direla. Dorre horiek aurrekoak baino baxuagoak dira, baina sartzeko arrapala izango dute, sorosleak azkarrago irten ahal izan daitezen. Dorretxook hondartza-garaia abian dela iritsiko dira, eta, beraz, litekeena da zerbitzuaren hasieran azken urteotako metalezkoak izatea oraindik ere.

- Lagundutako bainurako zerbitzua Kontxan. Ekainaren 15etik irailaren 15era eskaintzen da, 11:00etatik 19:30era, etenik gabe. Zerbitzuak hiru aulki anfibio ditu, eta, Covidetik babesteko segurtasun-neurri gisa, erabili ondoren desinfektatu egingo dira.

EGUZKI-BABESAK

Epeak amaituta, berriz ere martxan dira Donostiako hondartzetako eguzki-oihalak, karpak eta itzalkinak. Hala ere, oraindik ere badira batzuk esleitu gabe.

Prentsa oharra

Nota de prensa



- Ondarretako hondartzan, 98 karpetatik 49 okupatu dira, 198 itzalkinetatik 193, eta 424 eguzki-oihaletatik 332; beraz, badira elementu batzuk libre.
- Kontxan, eguzki-oihal guztiak okupatu dira, mugikortasun-arazoak dituztenentzat gordetako bat izan ezik. Hau da, erabilgarri dauden 440 eguzki-oihaletatik 439 esleitu dira.
- Eta Zurriolako hondartzan, 240 eguzki-oihaletatik 130 okupatu dira. Hondartza horretan ez da bete mugikortasun-arazoak dituzten pertsonentzako kupoko elementu bat bera ere.

Aurten, berriz eskainiko da Kontxako hondartzan aulkiak alokatzeko zerbitzua, pandemia baino lehen eskaintzen zen bezalaxe.

ALDAGELAK

Kontxako eta Ondarretako aldagelak berritzeko lanak egunotan amaituko dira, hondartza-garaiaren hasieran prest egon daitezen. Aldagelen ordutegia honako hau izango da:

- Ekaina eta iraila: 09:00-20:00
- Uztaila eta abuztua: 09:00-20:30

Aldageletara, beranduenez, ixteko ordua baino ordu erdi lehenago sartu ahal izango da. Nabarmentzekoa da Kontxako eta Ondarretako aldageletan, berritze-lanak aprobetxatuz, energia-efizientzia hobetzeko lanak ere egin direla.

BESTE ZERBITZU BATZUK

- Zurriolako hondartzan, zerbitzu hauek izango dira: Tin Tin kluba (900 m²); taberna, terraza eta guzti; eta boleiboleko kantxak (512 m²).
- Kontxako hondartzan, hegaleko tabernak eta izozki-kioskoa.
- Ondarretan, zerbitzu hauek eskainiko dira: piraguak alokatzeko zerbitzua (30 m²), Tin Tin kluba (600 m²), eta kioskoa, taberna eta terraza ekialdean (20+40 m²). Santa Klara uhartean, berriz, ekainaren 15etik aurrera, irekita egongo dira kioskoa, taberna eta komuna.

Prensa oharra

Nota de prensa

INGURUMEN-KALITATEA

Donostiako hondartzek kalifikazio altuak eta kalitate-ziurtagiriak dituzte, eta horrexek nabarmentzen ditu nazioartean. Hala, hiriko hondartzetan jarrita egongo dira ISO 14001 (2001ean lortutakoa), Europako EMAS ziurtagiria (2003az geroztikoa), eta ekohondartzen bandera (14 aldiz berretsia).

Aurten, gainera, **ITSAS@S** kanpainaren barruan, hainbat ekintza egingo dira:

- Donostiako hiru hondartzetan ez erretzea gomendatuko da, zigarro-muturrek hiriko hondartzetan duten inpaktua gutxitzeko eta osasuna sustatzeko neurri gisa.
- Agerian jarriko da zein garrantzitsua den zaborra lurrera ez botatzea, euriak eta haizeak itsasora eraman dezakete eta bestela. Horretarako, hiriko euri-uren hustubide batzuetan “Itsasoa hemen hasten da” dioten kartelak jarriko dira.
- Herritarrak sentsibilizatu eta heziko dira, hondartzetako monitoreen bidez.
- Herritarrek naturaguneetako zaborra biltzeko eta garbitzeko antolatutako jardunaldietan lagunduko da.
- Kanpaina indartu egingo da udako ekitaldi garrantzitsuenen aurreko egunetan, hala nola Jazzaldiaren eta Aste Nagusiaren aurretik; izan ere, egun horietan hondakin gehiago sortzen da, eta, ondorioz, itsasora ere hondakin gehiago iristen da.

Azkenik, gogoan izan behar da maiatzaren 31 izango dela txakurrak hondartzetara sartzeko azken eguna. Uda-garaia amaitutakoan, berriz ere izango dute hiriko hondartzez gozatzeko aukera.